

DONOSTIAKO ASTE NAGUSIA

GARA
2015/8/7

Testuak: Aritz MALDONADO

Argazkia: Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS



Mañana dará comienzo la semana más importante para muchos donostiarros. Miles de personas ocuparán el Boulevard y la plaza Alderdi Eder para presenciar el cañonazo anunciador del inicio de la Aste Nagusia; entonando el "Artillero dale fuego", se dará el pistoletazo de salida a la semana más festiva de la capital guipuzcoana. La interpretación de la canción correrá a cargo de miembros de Koruko Ama Birjinaren Eskola y del coro Easo; el disparo, en cambio, lo realizará el Artillero Mayor de La Gastronomía.

El menú de la fiesta donostiarra es un menú diario cocinado al gusto de todos, estilo *buffet*, al que cada cual podrá añadir sus propios ingredientes. Pero en la Aste Nagusia hay mucho donde elegir. Además del programa oficial del Ayuntamiento, el movimiento Piratak ofrece su propio programa participativo; este año la novedad será que la fiesta saldrá de la Parte Vieja a otros barrios como Antiguo o Intxaurreondo. El lunes, 10 de agosto, se celebrará el popular

El movimiento pirata llevará actividades a diversos barrios donostiarros

Menú variado para la semana más festiva del año

abordaje que organizan los propios piratas.

Los platos fuertes correrán a cargo de artistas, deportistas y, ¡cómo no!, los propios donostiarros, grandes protagonistas de la Aste Nagusia sobre todo desde que se apostó por el modelo participativo de fiestas. Para los amantes de la gastronomía, además de poder degustar pintxos por la Parte Vieja, habrá diferentes concursos gastronómicos. Uno de los más conocidos es el de marmitako, que se celebrará el día 15.

DEPORTES PARA TODOS LOS GUSTOS

Los aficionados al deporte tendrán su propia manera de vivir las fiestas. Bera-Bera ha organizado un maratón de fútbol sala para el día 14. Por otro lado, Askatuak ha preparado un año más el clásico torneo de basket de 3x3; Waterpolo Donostia ani-

ma a visitar la zona del Náutico para conocer el deporte de primera mano, y en el río Urumea se celebrará el concurso de pesca memorial Miguel Ángel Fernández.

Los amantes de la música no se pueden quejar. Además de los artistas que actuarán en Sagues, habrá oferta musical para todos los gustos en diferentes puntos de la ciudad. En la terraza Urumea del Kursaal se podrá disfrutar de conciertos tan dispares como Besteik-pe (rock-ska), Perlak (Post-punk) o Patxuko Nice (Cumbia). Las txarangas, por su parte, se encargarán de animar las calles.

Una de las novedades es el espectáculo "Ez da kasualitatea" (día 14 de a partir de las 23:30 en la plaza de la Constitución), preparado por las bertsolaris Uxue Alberdi, Oihana Bartra, Nerea Elustondo y Eli Pagola; Amaia Agirre se encargará de poner los

temas, y Pello Agirre y Xabier Lizaso de la música.

Por otro lado, tras cuatro años ausente gracias a la decisión tomada por la anterior corporación municipal, vuelven los toros a la Aste Nagusia. Por su parte, Askekintza Animalista ha organizado diversas actividades como alternativa al sufrimiento animal. Por ejemplo, para el día 12, miércoles, han organizado un concurso de tortilla de patata vegana en la explanada de Sagues, a partir de las 12:00.

OTRAS OPCIONES

Y para postre, helado y fuegos artificiales, una tradición ya consolidada. Este año se celebrará la 52 edición del concurso internacional de fuegos artificiales, en el que participarán las pirotecnias Valenciana, Firevision Internacional, Tomas, Pirotecnia Ricasa o Europla, entre otros.

Quienes prefieran una Aste Nagusia más tranquila, podrán disfrutar de diferentes exposiciones, como por ejemplo Pasolini Roma, un acercamiento al cineasta y escritor italiano a través de sus relaciones con la capital italiana. Durante toda la semana, la comparsa de gigantes de Donostia estará expuesta en el claustro del museo San Telmo.

El Artillero Mayor de La Gastronomía se encargará mañana de dar el cañonazo anunciador de la Aste Nagusia donostiarra.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS





Berri Txarrak taldeak datorren ostiralean, abuztuaren 14an, kontzertua eskainiko du Sagueseko agertokian. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

SAGUESEKO KONTZERTUAK

A.8

LARUNBATA

Kalakan + Oreka Tx

A.9

IGANDEA

Rosario

A.10

ASTELEHENA

Carlos Jean

A.11

ASTEARTEA

Hesian + Urtz

A.12

ASTEAZKENA

Skakeitan + Bad Manners

A.13

OSTEGUNA

Macaco

A.14

OSTIRALA

Berri Txarrak

A.15

LARUNBATA

Remember Queen

Denetariko doinuak Saguesen

Donostiako Aste Nagusian euskal taldeen aldeko apustua egin da duela urte batzuetatik hona. Festetan ere euskararen presentzia indartzea da helburua. Oreka TX eta Kalakan taldeek bertako instrumentuekin musika garaikidea eta modernoa egin daitekeela erakutsiko dute, beste behin; abuztuaren 8an izango da hori. Abuztuaren 9an bestelako doinuak izango dira agertokian; izan ere, Rosario Flores izango da gaueko protagonista. Madrildarrak bere ibilbideko abesti esanguratsuenak joko ditu Donostian.

Esan bezala, denetariko doinuak entzun ahalko dira Saguesen. Astelehenean, hilak 10, dantzarako gaua izango da. Carlos Jean galiziarrek musika elektronikorekin gozatu emango die hurbiltzen direnei.

Odol berria zaharrarekin elkartuko da hilaren 11ko gauean. Hesian eta Urtz nor baino nor

arituko dira Sagueseko agertokian. Nafarrek "Hegalak astinduz" lan berria aurkeztuko dute Donostiako publikoaren aurrean; 2013an kontzertuak eskaintzen hasi zenetik, hainbat eskaini ditu Urtz gipuzkoar taldeak.

SKA FESTA

Ska doinuak gailenduko dira asteazkenean, hilak 12. Bad Manners mitikoek kontzertua eskainiko dute Skakeitan taldearekin batera; donostiarrak sasoiko daude, udan hamaika kontzertu eskaini baitituzte Euskal Herriko festa askotan.

Hurrengo egunean dantzak aukera izaten jarraituko du; izan ere, abuztuaren 13an Macacoren fusio doinuek hartuko dute Sagueseko plaza. "Historias tatooadas" lan berria besapean duela iritsiko da Bartzelonakoa Donostiara. Jendetza espero da; izan ere, diskoa merkaturatu zenean iTunes plataformako lehenbiziko postua, hau da, salduena, izatera iritsi zen; diskoan, bizitzan

orbana utzi dioten gertakizunez mintzo da.

Ostiralean, Berri Txarrak igoiko da Sagueseko oholtzara. Hirukotea "Denbora da poligrafo bakarra" lan arrakastatsua aurkezteko biran dabil. Azkeneko diskoak erakusten duen bezala, doinu anitzak jorrazteko gai dira, betiere rocka oinarri hartuta. Ikasturtean zehar Estatu espainoleko hamaika aretotan aritu da, eta guztietan sarrerak agortu ditu. Udako festibaletan ere izan da, tartean, oihartzun handiko Resurrection Fest jaialdian. Abuztuaren 14koa hirukotea Gipuzkoan eta doan ikusteko aukera bakarretakoa izango da.

Abuztuaren 15ean, berriz, Remember Queen ikuskizunaren txanda izango da. Mundua zeharkatzen dabil Queen taldeari eginiko omenaldi honek. Taldearen musikari eginiko omenaldi bat izan nahi du, baita taldeko liderra zen Freddie Mercuryri eginikoa ere; ikuskizunak, abeslaria desagertu aurreko garaia dakartza gogora, taldea maila


gorenean zegoeneko. Bere ibilbidean zehar grabaturiko abesti arrakastatsuenetaz gozatu ahalko da Saguesen, eta Mercury, Brian May, Roger Taylor eta Jhon Diconek bere garaian erabilitako jantzi eta koreografia berbera erabiliko dira.

IKUSKIZUNA

Ikuskizunak Queen taldearen bideo originalak proiektatzen ditu, eta horrez gain, panel argitsuak ere erabiltzen dituzte. Erakustaldi tekniko itzela izateaz gain, Freddie Mercuryren munduko ordezkari onena du ikuskizunak: Piero Venery. Legendaren pare dagoen ikuskizun honek ez du inor epel utziko.

Sagueseko kontzertuez gain, bestelako musika eskaintza ere izango da Donostiako Aste Nagusian. Adibidez, Perlak eta Patxuko Nice taldeek kontzertua eskainiko dute. Musika klasikoa ere izango dute non gozatu.

Sagueseko kontzertu guztiak 23:45ean hasiko dira.



Inoiz baino donostiarrago, inoiz baino piratago



Flamenkako kontzertuak oso arrakastatsuak dira. Argazkian, Esne Beltza taldea, iazko jaietan. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Ehun jarduera baino gehiago antolatatu dituzte Donostiako piraten mugimenduak eta kofradiek, "Itsasotik plazara, Donostia pirata" lemapean. Inoiz baino ekitaldi gehiago antolatatu dituzte, Parte Zaharreko gunetan ez ezik, giroa hiriburu osora zabalatzeko asmoa dute eta.

Ekimen jendetsuena abuztuaren 10eko Abordatzea izango da, nola ez. Urtez urte partaide kopurua hazi egin da, eta Donostiako Aste Nagusiko hitzordu garrantzitsuenetako bat bilakatu da jada; dozena bat baltsa

inguru atera ziren lehenbiziko urtean, eta iaz, berriz, 500 inguru. Abordatze txikia ostegunean izango da.

Udaleko gobernu aldaketarekin, traba batzuk ere aurkitu dituzte piratek jai herrikoia antolatzeke; musika jartzaileen egitaraua, adibidez, aurten ez da izango Nautikoan, Guardetxean baizik. Flamenkan egingo dira ekitaldi nagusiak. Horrez gain, Antiguana, Urgull mendian, eta Txantxerreka, Kortxoenea eta Letaman gaztetxeetan ere izango da zertan parte hartu.

Piraten mugimenduak ezaguna zen Aste Nagusia herritarrengana hurbildu du; ikusle

hutsak izatetik protagonista izatera bultzatu ditu donostiarrak. Gipuzkoan ez ezik, Euskal Herri mailan ere oihartzun handia lortu du azken urteotan. Horren adibide da Abordatzea. Jada, ohikoa bilakatu da zindarrok gazte peñako lagunak edota Bilboko Kaskagorri konpartsako kideek txalupa baltsa egin eta ekimen ezagunean parte hartzen ikustea; Kale Jira dinamika-karen baitan kokatzen da esperientzia trukaketa hori. Elkarlan horren beste adibideetako bat EHZeekin duten harremana da; Donostian gonbidatu gisa hartzen dituzte, eta trukean musika jaialdiko muntaketa lanetan


aritzen dira pirata donostiarrak. «Elkarrekin bizipen berriak izan eta partekatze aukera ona dira horrelako topaketak; aberasgarria da gainera, jai herrikoien alde lan egiten duten mugimenduekin hitz egitea».

Autogestioan oinarritzen den mugimendua da; hortaz, piratek ez dute diru-laguntza instituzionalik jasotzen. Hainbat komertzio eta tabernariren babesa jasotzen dute, hori bai. Festak antolatzerakoan, jasangarritasunetik abiatzen dituzte planteamenduak.

Jairako ez ezik, kritikarako ere batzen dira piratak. Izan ere, horien ustez, aldarrikape-

nak, jaiak eta umore onak eskutik joan behar dute eraldaketa sozialaren alde egiteko. Filosofia horretan oinarrituta, Irrikitaldiarekin ematen diete amaiera festei 2006az geroztik. Arropa dotoreekin mozturoririk, Bulebarretik Parte Zaharreko Santa Maria elizaraino desfilea egiten dute piratek, Francoren garaiko Salbeari (udal taldeak aurten berriz berreskuratzeko saialdia egin duena) eta XIX. mende amaierako Belle Epoque delakoari trufa eginez. Urteko gertakari garrantzitsuenen irudikapen laburra ere egiten dute antzerkiaren bidez.

Gure lurraldetik KLIMA ALDAKETARI aurre egiteko konpromisoa



Ezkila, balioekin gidatzen dakien kapitaina



Iaz bezala, Ezkila kapitainak Piraten txupinazoa piztuko du.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

XXVI. mende hasieran, Pedro de Agirre izeneko kortsario donostiar bat ezagun egin zen. Campanario ezizenez ezagutzen zuten, eta pirata errukigabea zela dio legendak. Donostia kortsarioen portu garrantzitsua zen garai horretan eta ontzi ugari etorri ohi zen hainbat herrialdeetatik. Alta, ontziek Donostiara hurbiltzeko beldurra izan ohi zuten. Antza, Campanariok kargu publiko bat eskuratzeko aukera ere izan zuen (kortsarioek horrela egin ohi zuten); uko egin zion, ordea; Espainiako erregeak emaniko babes sozial eta ekonomiko ei muzin egin zion, eta ontziak abordatu eta bereganatzen jarraitzeko hautua egin zuen.

Urteetan, ontzi mordoa abor datu zituzten Campanario eta enparauek; Juan de Zuaznabarte ibili ohi zen berarekin, besteak beste. Campanarioren itsasontzia txikia zen, eta etsaiei ezinezkoa zitzaion hau jo eta kaltetzea. Bere izena aipatze soilak izua eragiten omen zuen, eta Donostiako merkatarien interesei ere erasotzen omen zieten. Halere, herritar xeheek harenganako konplizitatea erakusten zuten. Behinola, arrantzale batzuek barku frantziar bat bere atzetik zebilela jakinarazi zioten Campanariori. Trukean arrantzaleei lagundu zion donostiarrak. Campanarioren gotorlekua Belisa izeneko irla zen; Ezkilarena berriz, Santa Klara uhartea da.

Jaiak baliatuta hainbat balio bultzatzen ditu piraten mugimenduak. Auzolana, herritarren partaidetza, parekidetasuna, jasangarritasun ekonomikoa zein ekologikoa, irudimena, kultur aniztasuna, elkarrekiko errespetua eta euskararen normalizazioa dira horietako batzuk. Horiek guztiek Ezkila kapitainaren baitan biltzen dira. Campanario ezizenez ezagutzen zen Pedro de Agirre kortsario eta pirata do-

nostiarren kondairan oinarritzen da Ezkila. Bera da Piraten Aste Nagusiko kapitaina.

Piraten mugimendua balio aurrerakoietan oinarritzen da. Hori dela eta, horien alde urtean zehar lan egiten duten eragile, elkartek eta taldeen lana Aste Nagusian aitortzeko, Matti sinboloa jaio zen. 2011n Martuteneko bizilagunak izan ziren Matti (uholdeen ondoren izandako jarrera txalogarriagatik, auzolanean auzoa biziberritu zuten eta), eta 2012an, berriz, etxe kaleratzeen aurkako kolektiboa. Iazko Aste Nagusian, berriz, abortuaren aldeko mugimendua ordezkatu zuen Mattik. Askatasuna norberarengandik hasten dela uste dute piratek; hori dela eta, erabakiak hartzeko eskubidea oinarritzkoa da.

EZ DA HUTSETIK ASMATUA

Matti izeneko figura ez da hutsetik asmatua. Martin de Villafranca Donostiako kapitainari egin nahi izan diote keinu honekin piratek. Islandian hil zuten, 1615. urtean, bidegabeki. Urte hori zaila izan zen Islandian, kostaldeko izozturik baitzegoen. Uda erdialdean hiru ontzi baleazale Reykjarfjorourera iritsi ziren Euskal Herritik; aurretik beste hainbatean egin bezala, akordioa sinatu zuten islandiarrek eta euskaldunek. Irail amaieran, enbatak hiru itsasontziak suntsitu zituen, eta hainbat arrantzale hil ziren. Itsasgizonetako batzuk etxera itzuli ziren; beste batzuk, ordea, Martin De Villafrancak bezala, bertan jarraitu zuten. Urte horretako urrian hil zituzten.

Garai hartako agiriekin diotenaren arabera, haiek hiltzeko erabakia Ogur herriko Ari Magnusson agintariak hartu zuen. Bere itsasontziak urperatu eta gero, kriminal izendatu zuten, 1281eko islandiar kodea hautsi zuelakoan; zigor bakarra heriotza zen. Ondoren, hainbat intelektuala islandiarrek idatzi zuten euskal marinen hilketa bidegabekia izan zela.

IGELDOKO ESNEA
Baxerriko Esne Pasteurizatua

24 ESNE MAKINAK
Gros. Nafarroa behe plaza
Antigua. Gaskonia plaza
943 21 86 76
645 73 57 62

ORMAZABAL ETXEA
1952tik - Desde 1952
Cocina Tradicional vasca

Berezitasunak Txipiak tintan · Bakallaoa Tipularekin

Abuztuaren 31 kalea, 22.
Alde Zaharra **DONOSTIA**
686 633 025



Antiguo
AUTOESKOLA
Teorikoa euskeraz
Mikeletes Pasealekua, 20. © 943 216 551
Avda. Tolosa, 15. © 943 106 094

Kofradiak, Donostia osoa hartzeko asmoz

Donostiako Piraten mugimenduaren erditzetik, bederatzi kofradia sortu ziren. Bakoitza bere nortasunarekin eta ezaugarriekin, baina guztiak ere, jai eredu herrikoi eta alternatiboa hiriburu osoan zehar hedatzeko helburuarekin. Aste Nagusi ofizialari alternatiba bat eskaini nahian, bakoitzak egitarau propioa egiten du urtero. Hauek dira Donostiako Piraten kofradiak.

Ubarroiak

Uliako arrakaletatik jaitsi, eta Grosen aritzen diren hegazti piratak dira ubarroiak. Jaiak deszentralizatu, eta auzoan ere algararako eta parrandarako tartea izatea nahi dute, betiere ingurumena errespetatuz, eta festa parte hartzailea eta irekia egiteko asmoz. Auzotarrei hurbiltzeko deia egiten diete, gainera, lapur bai, baina lapur zintzoak direlako. Aste Nagusiko egun handia, berriz, abuztuaren 11n dute: Ubarroien Eguna ospatuko dute.

Xibaro62+

1492ko konkistan ontzi espainol eta portugesez milaka esklabo hartu zituzten; kateetatik libre eta aske izateko hautua hartu zuten herritarrei deitzen zitzaien xibaroak. Egoera gordinari bizipozarekin aurre egin zioten afrikarrek bezala, donostiar talde honek ere ziegetan dauden donostiarrek izango dituzte gogoan Aste Nagusian; izenak berezitasun bat du, zenbakia festa hasi orduko ziegetan dauden donostiar kopurua delako. Beraien ametsa kopuru hori

ezabatzea da. Larunbata, 15, dute egun handia.

Traganarrua

Donostiako festak Intxaurren dora iristeko asmoz jaio zen Traganarrua, bazterrak nahastu eta festa hiriburuko toki bereziene-tako batera eramateko. Izan ere, Aste Nagusian, urte osoan zehar ematen diren arazoak areagotu egiten dira auzoa hustu egiten da-eta. Bada, festaz auzoan bertan gozatu ahal izateko, ekimen ezberdinak antolatu dituzte tra-

ganarruek. Abuztuaren 9an, adibidez, estankeak aboratu dute; 13an, berriz, erronka egingo dute ubarroiekin eta aingurekin.

Aingura

Festa eta ingurugiroa zaintzea bateragarriak direla erakusteko asmoz sortu zen Aingura. Naturarekiko errespetua eta kontzientzia bultzatzen duen kofradia da, hain zuzen ere.

Gainerako piratekin batera festaz gozatu eta ingurunea zaintzeko ekimenak antolatu ohi dituzte. Adibidez, 13an ospatuko duten Bizifesta izango da data garrantzitsuenak. Festa errespetuz bizitzeko deia egin dute, horrez gainera. "Lurra iraintzen duenak bere burua iraintzen du" dute lelo.

Sardiñerak

Kalean gora eta behera festa lau haizetara zabaltzen dabilen emakumeak dira sardiñerak. Guztiok elkarrekin, askatasunez eta errespetuz, jaiak gozatzeko deia zabaltzen dute. Aste Nagusi honetako txupinazora batera joateko, 19:00etan Andresak Bretxan duen postuan geratu dira. Horrez gainera, ospakizun garrantzitsua asteazkenean ospatuko den Sardiñerria izango da; Urgulleko Guardetxean izango da hori, 23:00etatik aurrera.

Pirata Bihurriak

Pirata izatea jarrera bat da, adin edo sexualitate mugarik gabekoa. Donostia txikitatik abor-

tzen ikasteko, haur, gazte, zein gurasoen neurriko festak osatzeko alternatiba dakar Pirata Bihurriak kofradiak. Jolas ezberdinak, magoak, erromeria... denetarik eskaintza du aurtengo Aste Nagusirako kofradiak, urte osoan itxarondako eguna, baina, 13ko Haur Eguna da. Kalarran Abordaia Txikia egingo dute pirata txikienek. Izan bihurri, izan pirata!

Kalepoza

Aste Nagusiari poza eta kolorea emateko jaio zen, Alde Zaharrean. Kale Lagunak hockey taldeko eta Biziz Poza taldeko lagunak elkartzeko sortu zen kofradia hau, eta, beraiek dioten bezala, Donostiako Piratetan parte hartzetik, parte izaterako jauzian sortu zen. Fuxia kolorea daramate soinean, festarako dute grina bikain transmititzen duelako. Piraten lanari beren aletxoak jarriko diote aurtan, besteak beste hockey tailerrarekin eta bigarren bizikrosarekin.

Eskifaia

Gazteak ez ziren jaio aspertzeko; hori dela eta, gazte euskaldunek osaturiko Eskifaia kofradia sortu zuten Donostiako Piraten baitan bildutako hainbat lagunak. Piratek antolatutako ekintza alternatiboei, gazteen ikuspuntua eman nahi diete horrela. Hiriko gazte koadrila ezberdinak elkartu asmoz, Aldrebes Eguna antolatu dute abuztuaren 14rako. Bestelako ekimenak ere antolatu dituzte aurtengo Aste Nagusirako.

Filibusteroak

Bere kontura bizi ziren piratak ziren filibusteroak; ez legerik ez jaberik, bestelako lurraldeak konkistatzea zen beraien asmoa. Filibusteroen antzera, Antiguako bizilagun hauek ere Donostia (tunelaz bestaldeko lurraldea) aboratu dute urtero. Flamenkan aurkezpena egin ostean, kofradia honen helburua pirata guztien artean hiri osoa aboratzeko da, «beste Donostia bat posible delako». Filibusteroek abuztuaren 12an ospatuko dute beraien eguna, halere, hamaika ekitaldi antolatu dituzte beste egunetan festa Antiguara eramateko.



Lau urte eta gero, atzera itzuli dira zezenketak Donostiako Aste Nagusira, zein da zure iritzia?

Atzeraka goazela. Gainditua zegoen fase batera itzultzen ari gara. Plaza horrek jendeari sekulako kostua ekarri zion, 24 milioi eta erdi, eta oraindik prezio berezia jarri diete zezenketei; ondorioz, kontzertuak antolatzea zezenketak egitea baino garestiagoa da. Guretzako ezin da ulertu, eta, geroari begira, aurkezpen txartelik politena ez dela uste dugu. Horrez gainera, Illunberi erabilera emateko ekimen politagoak daudela iruditzen zaigu.

Bateragarriak al dira horrelako ekitaldiak eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburu bezalako ekimenak?

Europako hamaika lekutan ez dute gertatutakoa ulertuko. Gure burua Europan aurkezteko modu penagarria da. Badaukagu zer esan eta nola aurkeztu, kultura hiriburu ez gaituzte hautatu kasualitatez, baina zezenketak ez dira gure irudia bultzatzeko jarduera egokiena.

Udal talde berriak presa batean onartu du zezenketak berriz ere baimentzea. Zergatik egin du?

Alde batetik, positiboa da, azkartasun eta eraginkortasun berbera erakutsiko balute beste arazo batzuk konpontzeko, udal gobernu berriak arazo asko konponduko lituzke-eta. Momentuz, baina, azkartasuna gai honekin bakarrik izan dute; beste hainbat gaitan erantzun zain gaude oraindik. Hor dago, adibidez, Txominekin izandako sententzia eta dagoen egoera. Beste egoera batzuek ez dute azkartasun bera eduki, horregatik gaude mesfidati.

Salbeko prozesioa ere berreskuratu nahi izan dute. Bestelako jai eredu bat ezarri nahi dutela uste al duzu?

Zuri-beltzezko garaietara goazela dirudi, atzeraka. Zer jai ereduaren alde dabilzan ikusten da ho-

«Zuri-beltzezko garaietara goazela dirudi, atzeraka, 'ikusi eta txalotu' eredura»

AMAIA ALMIRALL

EH Bilduko zinegotzia

2011 z geroztik Donostia Kulturako zuzendaria da Amaia Almirall. Ekainetik aurrera, Donostiako Udaleko zinegotzia ere bada. Urte hauetan Aste Nagusian egindako lanak bere fruituak eman dituela uste du, eta herritarrek jai eredu parte hartzailea defendatuko dutela.



Argazkia: Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

nela: ikusi eta txalotu, hori besterik ez. Askok nabarmendu dute ez zela prozesioa izango, segizio bat baizik, baina kontua da, aurrera joan beharrean, beste garai bateko eskemak berreskuratzen ari garela. Inplikaziotik, gertutasunetik eta parte hartzetik urrutiratzen den eredu batera eraman nahi gaituztela dirudi.

Mantenduko dira urteotan parte hartzean eman diren pausoak?

Une honetan, nolabaiteko kezka dugu. Uztaila bukatzera doa, hainbat gertakizun egon dira, eta zantzuak ez dira onak: San Joanetako esku dantzetan udaltzaingoaren presentzia neurri-gabea, Karmen ospakizuneko gonbidapenak mugatzea... Zer gertatzen den ikusiko dugu, izan ere, joratu den bideak bere emaitzak eman ditu eta gerta daiteke bai Donostiako Piratak mugimendutik antolatzen den bidetik jarraitzea bai atzera egitea, lehen aipatu ditugun bi adibideekin gertatu bezala. Une honetan ez dakigu nora goazen, baina atzera joango ote garen kezka izan badugu.

Eragina izango du Donostiako Piraten mugimenduan udal gobernu aldaketak?

Donostiako Piraten jai ereduak aurrera jarraituko du, bai ala

bai. Udalak, ahal duen heinean, hori errespetatu eta erraztu egin behar du. Hori gabe ere piratek jarraituko dute, horretaz ziur nago. Gauzak erraztuz, garapena ere lagunduko da, gainera.

Udan turista andana dator Donostiara. Posiblea da Aste Nagusi herrikoi bat, eta, aldi berean, turistentzako erakargarri bat antolatzea?

Nik esango nuke baietz. Kanpora goazenean, hangoek egiten dutena ezagutzen dugu besteok, ezta? Guk ondo pasatzen badugu, turistek ere ondo pasako dute. Hain zuzen, piratek hor asmatu dute. Dena den, festak hiriari begira antolatu behar dira, ez turistei begira. Finean, Aste Nagusian turista piloa dago, baina bertako jende ugari ere bai; donostiar asko, Gipuzkoako beste leku batzuetatik etorritako jende asko...

Zerk bereizten du Donostiako Aste Nagusia beste hiriburuetako festetatik?

Gure baloreetan oinarritu den festa dela. Euskaltzalea, gero eta parekideagoa, gero eta aktiboagoa. Erdigunetik irteten ere ari gara. Azkeneko urteetan eman den balore aldaketa horrek ezberdintzen gaitu.

Arat^z

Zabaleta anaien sukaldea
Igara bidea 15 • Donostia 943 21 99 89



Jaiak ez du etenik izaten Donostiako Aste Nagusian, zoritxarrez, dispertsioak ere ez. Preso zein iheslari politiko donostiarrek faltan botako dituzten egun bereziak izan ohi dira, lagunekin zein senideekin ospatzen egon beharren etxetik ehunka kilometrora egon behar dute-eta.

Une honetan, 62 donostiar 11 espetxetan barreiatutik daude. 79.448 kilometrotik gora egin beharko lirateke Espainiako zein Frantziako espetxeetan dispertsaturik dauden donostiarrek bisitatu ahal izateko. Horri zama ekonomikoa gehitu behar zaio: urtean, batez beste, preso donostiar bakoitzaren senideek 38.000 eurotik gorako gastuari aurre egin behar diote.

MUTURREKO EGOERAK

Dispertsaturik egotea bera salbuespeneko egoera den arren, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideen artean badaude muturrekoak diren egoeratan daudenak ere. Donostiarren kasuan, batzuk aipatzearren, gaixorik daudenenak izan daitezke: Karlos Trenor egia eta Jagoba Codo amarra, gaixorik egonda ere, espetxean dituzte. Bestalde, Jon Enparantza Antiguako bizilaguna guztiz isolaturik dago atxilotu zutenetik.

Karlos Trenor 2007ko abenduaz geroztik dago espetxean; egun Ocaña II kartzelan dago, auzotik 520 kilometrora. Trenorrek jada 71 urte baditu ere, espetxean mantentzen dute. 1998ko uztailaren 16an atxilotu zuten lehenbizikoz, "Egin" egunkaria itxi zutenean. Bigarren, 2000ko urrian atxilotu zuten, Joxemi Zumalabe Fundazioaren kontrako operazioan. Ostean etorri zen 18/98+ prozesuan ere auziperatua egon zen, eta, aldi berean, abokatu lanetan ere jardun zuen. Epaiketak iraun zituen hamasei hilabeteetan zehar, presio gogorra jasan behar izan zuen. 2007ko martxoan amaitu zen epaiketa, eta urte horretako

79.448 kilometro preso donostiarrek bisitatu ahal izateko



abenduan atxilotu zuten. Orduetik espetxe ezberdinak ezagutu ditu, eta senide eta lagunek milaka kilometro egin behar izan dituzte berarekin egoteko; Puerto de Santamaria, Malaga, A Lama (Galizia) eta Ocañako kartzelak ezagutu ditu; egun bertan dago preso.

Jagoba Codoren kasuan, berri, espondilitis ankilosatzailer gaixotasuna du. Gaixotasun erreumatiko horrek eguneko ariketa ohikoenak muga ditza: zutik jartzea, alboetara begiratzea... Askotan bakarrik moldatzea ezinezkoa izaten da, beraz, lagun eta familiaren laguntza ezinbestekoa da Codorentzat. Amarako bizilaguna 2001ean atxilotu zuten, eta 22 urteko espetxe zigorra du. 2011n hasi zen zerbikaletako minekin,

Euskal presoek eskubideen alde iaz egin zen ekitaldian jende askok parte hartu zuen. Aurten ere, hainbat ekimenetan oroituko dituzte presoak, Donostiakoak bereziki.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

eta 2012an espondilitis ankilosatzailer diagnostikatu zioten. Horrez gainera, pluripatologia koadroa du. Tratamendua sintomen eta horien larritasunaren arabera da, baina, helburua, sintomak gutxitzea baino ez da. Ariketa fisikoa da tratamenduren atal garrantzitsuetako bat.

Espetxea, dituen baldintza eta ezaugarriengatik, ez da toki egoia Codorentzako; azken urtean izan duen progresio kaltegarriak hori erakusten du. Bere gaixotasunari dagokion tratamendua jasotzeko, berandu baino lehen etxean egon behar duela nabarmendu du behin baino gehiagotan Sarek.

Enparantza abokatuaren kasua ere azpimarratzekoa da duen larritasunagatik. 2014ko urtarrilean atxilo hartu zuten

Antiguako bizilaguna, beste hainbat herritarrekin batera. Orduetik, Alcalako (Madrid) espetxean dago preso, guztiz isolaturik. Gainera, oraindik ere epaiketaren zain dago.

ETXERA ITZULITAKOAK

Preso zein iheslarien egoera larria izan arren, urtean zehar badira pozteko moduko albisteak ere. Horien artean, orain gutxi askatasuna berreskuratu duen Armando Legazen kasua dago. Ez da azken urtean etxera itzuli ahal izan duen bakarra. Horren erakusle da Xibaroak konpartaren zenbakia; preso kopurua adierazten du, eta, beraz, aldatzen da. Bada, aurten, iaz baino 12 donostiar espetxeratu gutxiagorekin hasiko da Aste Nagusia.

BIKABI
ARTEKARITZA, S.L.
CORREDURIA DE SEGUROS

Autonomia Kalea, 12. Behea. DONOSTIA
T. 943 47 47 19 - 607 47 47 19 - Fax: 943.47.47.20

HERRIA
Taberna · Elkarte
Abertzale eta ezkertiarren txokoa

Pintxoak · Razioak
Plater konbinatuak · Bokatak



Ikatz kalea 14.
Alde Zaharra
DONOSTIA
© 943 42 22 63



Illunbe hilobi bihurtuko da berriz zezenentzat

Lau urteko geldialdia eta gero zezenketak Illunbeko plazara itzuliko dira aurtengo Aste Nagusian. Erabakia ezagutzera eman zenetik, zeresan handia eman du; oposiziozko talde batzuk aurka agertu dira, eta kalean ere donostiar ugarik adierazi dute beraien haserre. Donostia Antitaurina Orain plataforma, adibidez, berriro jarri da martxan, eta hainbat ekimen iragarri ditu Aste Nagusirako.

Hamaika ekintza egin zituzten iraganean, eta joan den maiatzetik aurrera, berriz ekin diote ekintzen bideari. Besteak beste, abuztuaren 9rako manifestazioa iragarri dute, zezenketen aurka daudela adierazteko; 18:00etan abiatuko da mobilizazioa. Horrez gainera, bi egun geroago, abuztuaren 11n, jendarrea kontzientziatzeko bi ekimen egingo dituzte. Arratsaldean, kaleak jendez lepo egongo direla baliatuta, informazioa banatuko dute. Bestalde, gauean, protesta ikusgarria egiteko asmoa dute, argizko panelekin.

Azken urteetan zezenketak debekaturik egonda, bestelako hiri edo herri batzuetan lan egin dute zezenketen aurkako taldeek. Donostian bertan, animalien eskubideen defentsako taldeek ere lanean jarraitu dute. Egungo udal taldearen erabakiarekin, ordea, lozorrotik esnatu eta lanean jarri dira berriro ere basakeria hau gelditu asmoz.

Donostia Antitaurina Orain plataforma 2011n sortu zen, eta orain martxan dago, berriz. Ideologia ezberdinetako hamabost

ekintzaile inguruk osatzen dute, eta helburua Donostia hiri antitaurino izatea da. «Europako Kulturaren Hiriburua izanda, ez diogu zentzurik ikusten animaliak torturatzea kultura gisa definitzea», azaldu du Nora Barraguese plataformako kideak.

SINADURA BILKETA

EAJ eta PSEren udal gobernua erabakiaren berri eman zuenetik, martxan jarri zen plataforma, eta lehenbiziko ekintzetako bat, sinadura bilketa kanpaina bat martxan jartzea izan zen. Aste gutxi batzuen buruan 12.000 sinaduratik gora lortu zituzten. «Ulertzen dugu sinadura bilketa hori oso baliagarria dela, komunikabide ugaritan agertu baita». Hala ere, Udalaren aldeetik ez dute erantzunik jaso. Bertan, Donostia hiri antitaurino izendatzea eskatzen da, eta horrez gainera, eskaera zuzena egingen zaio Eneko Goia alkateari eta bere taldeari, «praktika zaharkitu eta krudel hau» ez onartzeko.

«Gure hurrengo asmoa, herri galdeketa bat egitea litzateke; uste dugu gipuzkoar gehienak zezenketen aurka gaudela». 90eko hamarkadan, Odon Elorza alkatea zelarik, Illunbe ez erakitzeke 14.000 sinadura bildu ziren. Barraguesen arabera, gainera, azken udal hauteskundeetan EAJ bozkatu duten herritar askok ez zekiten jeltzaleek zezenketak berriz abian jartzeko asmorik zutenik.

Orain lau urte, Bilduk hauteskundeak irabazi eta Juan Karlos Izagirre alkatea aukeratu zutenean, zezenketak bertan behera geratu ziren. Egungo koalizioak jarrera berdina agertu

du jardun honekiko. Horrela, mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk zezenketak berriro egotearen aurka.

Horrez gainera, 1993an Gallup enpresak eginiko galdeketa baten arabera, gipuzkoarren %73ek ez zuten interesik zezenketetan.

Donostia Antitaurina Orain plataformako ordezkariaren hitzetan, udaletik zein zezenketa zaleek arrazoi ekonomikoen ikuspegitik defendatzen dute erabakia. «Guk ez dugu hori hain argi, Herrialde Katalanetan edota Kanaria uharteetan argi ikus daiteke ez duela eraginik turismoan». Arrazoi hori ukatzeaz gainera, eztabaida desbideratzeko ematen ari den saiakera ere salatu du plataformak. «Politikaren terrenora eramaten ari dira eztabaida, eta guk hortik atera nahi dugu». Funtsean, animalien eskubideen inguruko eztabaida litzateke Donostia Antitaurinoa Orain plataformarentzako egin beharrekoa. «Ekonomiak ala izaki bizidunen eskubideek dute garrantzia gehiago?».

«INPOSIZIOA»

Erabakia hartzeko moduaz ere mintzatu da donostiarra, izan ere, herritarrek baztertu egin dituztela uste dute plataformako kideek. «Egiteko moduagatik, iruditzen zaigu egindakoa inposizio bat dela, esan bezala, guk eskatzen duguna hiritarroi erabakitzen uztea da». Bestalde, kontraesana iruditzen zaie Europako Kultura Hiriburua izango den hirian krudeltasuna aisialdirako erabiltzea.

«Europako Kulturaren Hiriburua izanda, ez diogu zentzurik ikusten animaliak torturatzea kultura gisa definitzea», azaldu du Nora Barraguesek, Donostia Antitaurina Orain plataformaren izenean.



2012. urtean Bilbo plazan egin zuten ekimena. J. MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

GANBARA
bar · asador

Especialidad
Hongos y setas de temporada
Pescados a la brasa

San jeronimo, 21. DONOSTIA · T. 943 422 575

Panpox
Moda
Adin guztietako
emakumeentzako arropa,
marka nazionalak.

Osagarriak, gipuzkoako
neskek, artisauki eginak.

Tolosa Hiribidea, 17. DONOSTIA
panpoxamoda@hotmail.com
943 325 256

BAR-RESTAVRANTE
Pintxo-bokata bereziak
Betiko sukaldaritza

ITALUPA

F. Calbeton, 3
Donostiako Bretxa ondoan
Tel.: 943429875

FESTETAKO EGITARAUA

A.8

LARUNBATA

Egun osoan:

EUSKAL HERRIKO NEKAZAL
PRODUKTUEN IV. AZOKA
BEREZIA Loiola kalean.

10,00-13,00/

15,00-20,00

DONOSTIAKO ASTE

NAGUSIKO V.

HONDARTZAKO ERRUGBI

TXAPELKETA.

11,00 ESKULANGINTZA
AZOKAREN INAUGURAZIOA
Vinuesa plazan.

18,15 GOAZEN

KANOIKADARA!! Trinitate

plazatik irtengo da

19,00 FESTA HASIERAKO

KANOIKADA Alderdi Ederren.

Koruko Ama Birjinaren Eskola

taldekoek eta Easo

abesbatzako kideek

"ARTILLERO" abestuko dute.

19,00 SOUPKANDJA

REGGAE TALDEA, Vinuesa

Plazan.

19,00 TAUPADA

BATUKADA Parte Zaharreko

kaleetan.

19,00 LOS BEBES DE LA

BULLA Erdialdeko kaleetan.

19,00 GAUERDI Kontxa

pasealekuan.

19,01 ROCKALEAN

elektrotxaranga

Boulevardeko kioskoan.

19,30 ZURRIOLA KULTURA

IREKIA: TERRAZAREN

INAUGURAZIOA,

Kursaaleko Urumea terrazan.

19,30 IGELDOKO HARRIA.

HARRIJASOTZAILEAK

Trinitate plazan.

20,30 XXXVIII. TXISTULARI

ALARDEA Konstituzio

plazan.

21,00-22,15 PERLAK,

post-punka Kursaaleko

Urumea terrazan.



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

22,45 SU ARTIFIZIALEN
NAZIOARTEKO 52.

LEHIAKETA

Kontxako badian.

23,15-02,30 KURSAAL

GUNE ZABALA. FESTAN

BLAI GAUA. DJ-ak, opariak,

jolasak, sorpresak eta

gonbidatu bereziak...

Kursaaleko Urumea terrazan.

23,30 ZEZENSUZKOEN

ENTZIERROA.

23,30 PSYCHO-CLOWN

perkusio emanaldia Zo-

Zongóren eskutik Parte

Zaharreko kaleetan.

23,30 CAFÉ IRLANDES

orkestra, dantzaldia Easo

Plazan.

23,30 ZIRIKA ZIRKUS

taldeak "TREN GELTOKIA"

ikuskizuna aurkeztuko du.

23,45 KALAKAN eta

OREKA TX Saguesen.

23,45-02,00 "GAUA

PIZTU" Boulevardean.

A.9

IGANDEA

11,00 BIZIKLETA ETA
PATINETAN JAIGIRO MARTXA.

Irteera eta helmuga Saguesen.

11,30-13,30

HAURRENTZAKO LUDOTEKA,

Vinuesa plazan.

12,00 EUSKALDANTZA

MUXIKOAK Boulevardeko

kioskoan.

12,30 BERTAKO

PRODUKTUETAKO

GASTRONOMI LEHIAKETA

GAZTEENTZAT, Bretxan.

13,30-14,30 LOS BRACCO,

rock musika Kursaaleko

Urumea terrazan.

17,00 II GOITIBEHERA

JAITSIERA ASTE NAGUSIA

Markotegi bidetik (Zuatzu).

17,15 ZALDI LASTERKETAK

Donostiako Hipodromoan.

17,30 PATATA
TROPICAL TALDEAK "Azken

eguzkiloa" ikuskizuna

aurkeztuko du.

19,00 ARAIAKO MUSIKA

BANDA Boulevardeko

kioskoan.

19,30 ESKOLA DANTZA

TALDEA, 75. urteurrenko

emanaldi berezia.

Konstituzio plazan.

20,00 SARDINA JATEA

Easo plazan.

21,00-22,15 LOS BRACCO,

rock musika Kursaaleko

Urumea terrazan.

23,15-02,30 KURSAAL

GUNE ZABALA. DJ GAUA: 2

CRAZEBEATS Kursaaleko

Urumea terrazan.

23,30 HIP HOP FESTA.

DFVZ, ELEKA & SOFIA, IÑIGO

PLAZAOLA FT. DREEZZYB...

Ondarretan.

23,30 ZEZENSUZKOEN

ENTZIERROA.

23,30 AZABACHE orkestra,

dantzaldia Easo plazan.

23,30 C. GARMENDIA ETA M.

GOVILLARD dantza eskolaren

"25 URTE ASTE

NAGUSIAREKIN" dantza

ikuskizuna Boulevardeko

kioskoan.

23,30 BAMBALUA TEATRO

taldeak "FRANKRISTINA"

ikuskizuna aurkeztuko du.

23,45 ROSARIO, fusioa

Saguesen. Babeslea: Amstel.

A.10

ASTELEHENA

08,00 ABORDATZERA !!!

Baltsen muntaketa portuan.

12,00 PATATA TORTILLA

LEHIAKETA "Contigo en la

playa", La Perlan.

12:00 AQUARIUMEKO VII

ZINEMA ASTEA: "EGIPTOKO

HIRI URPERATUA."

12,00 BERTSOLARIAK Easo

plazan. Parte-hartzaileak:

Amets Arzallus, Alaia Martin,

Agin Laburu eta Unai

Gaztelumendi.

13,30-14,30 PATXUKO

NICE, rock, ska, indie eta

cumbia Kursaaleko Urumea

terrazan.

17,00 ABORDATZERA!!!

Portutik irten eta Kontxako

hondartzan lehorreratu.

19,00 ZANGOZAKO UDAL

MUSIKA BANDA Boulevardeko

kioskoan.

19,30 GOIZALDI DANTZA

TALDEA, Konstituzio plazan.

20,00 Musika Hamabostaldia.

GRIGORY SOKOLOV

pianojolea Victoria Eugenia

antzokian.

21,00-22,15 PATXUKO

NICE, rock, ska, indie eta

cumbia Kursaaleko Urumea

terrazan.



23,30 DANTZADI, erromeria Konstituzio plazan.
23,30 EGAN, dantzaldia Easo plazan.
23,30 TRAPU ZAHARRA taldeak "ONGI ETORRI FINDEMUNDO" ikuskizuna aurkeztuko du. Gipuzkoa plazan.

A.11
ASTEARTEA

13,30-14,30 CHARLES ATKEY, kantautorea Kursaaaleko Urumea terrazan.
19,00 TRINTXERPEKO "ILLUMBE" MUSIKA BANDA Boulevardeko kioskoan.
19,30 KRESALA DANTZA TALDEA, folklorea Konstituzio plazan.
21,00-22,15 CHARLES ATKEY, kantautorea Kursaaaleko Urumea terrazan.
23,30 ALTZAQUILLO. Jon Mayaren koreografia. Ondarretan.
23,30 PATXI ETA KONPAINIA erromeria Konstituzio plazan.
23,30 IBAI BERRIAK orkestra, dantzaldia Easo plazan.
23,30 BERRIKETAN, txalaparta eta flamenkoa Boulevardeko kioskoan.
23,45 HESIAN, punk-rock musika eta URTZ, rock musika Saguesen.

A.12
ASTEAZKENA

12,00 PATATA TORTILA BEGANO LEHIAKETA. Sagueseko zabalgunean.
12,00 BERTSOLARIAK Easo plazan. Parte-hartzaileak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Asier Azpiroz "Azpi".
13,00 ULYSSES ENSEMBLE STREET

ORCHESTRA Boulevardeko kioskoan.
13,30-14,30 MUNLET, elektro-rock musika Kursaaaleko Urumea terrazan.
19,00 ALAI TALDEA MUSIKA BANDA Boulevardeko kioskoan.
19,30 GERO AXULAR DANTZA TALDEA, folklorea Konstituzio plazan.
23,15-02,30 KURSAAL GUNE ZABALA. DJ GAUA: OIHAN VEGA Kursaaaleko Urumea terrazan.
23,30 ISILTASUNA DANTZATUZ. ZeinuDantza ikuskizuna ARYMUX konpainiaren eskutik Ondarretan.
23,30 INGO AL DEU? erromeria Konstituzio plazan.
23,30 AGIRREN TALDEA orkestra, dantzaldia Easo plazan.
23,30 MIELOTXIN, folka Boulevardeko kioskoan.
23,30 SUN MAGOAK "HOR DOA MAGIA" ikuskizuna aurkeztuko du, Gipuzkoa plazan.
23,45 BAD MANNERS, ska Saguesen. Hasierako taldea: SKAKEITAN.

A.13
OSTEGUNA

13,30-14,30 THE YOUNG WAIT, soul-funk musika Kursaaaleko Urumea terrazan.
19,00 Musika Hamabostaldia. G. PUCCINlren "TOSCA", Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Easo Abesbatzaren eskutik Kursaaaleko Auditorioan.
19,00 BIG BAND CÔTE BASQUE Boulevardeko kioskoan.
19,30 TREBESKA DANTZA TALDEA, folklorea Konstituzio plazan.



21,00-22,15 THE YOUNG WAIT, soul-funk Kursaaaleko Urumea terrazan.
23,30 ZINEA ONDARRETAN: "Urte Berri On, Amona" (2011) Zuz.
23,30 ITZARTU erromeria Konstituzio plazan.
23,30 TSUNAMI orkestra, dantzaldia Easo plazan.
23,30 ORQUESTA EXILIO NEW TANGO, tangoak Boulevardeko kioskoan.
23,30 CIRCORTITO taldeak "ARRETAGABEAK!" ikuskizuna aurkeztuko du, Gipuzkoa plazan.
23,45 MACACO, fusioa Saguesen.

A.14
OSTIRALA

12,00 BERTSOLARIAK Easo plazan. Parte-hartzaileak: Aitor Mendiluze, Julio Soto, Beñat Gaztelumendi eta Maddalen Arzallus.
13,30-14,30 BLACK GAMBA, soul-funk Kursaaaleko Urumea terrazan.
19,00 VALTIERRAKO MUSIKA BANDA Boulevardeko kioskoan.
19,00 MARIACHI INTERNAZIONALE, Kontxako pasealekuan zehar.

19,30 ACORDES NAVARROS, jotak Konstituzio plazan.
20,00 SARDINA JATEA Easo plazan, Paul eta Lierni trikitilariekin.
23,30 "EZ DA KASUALITATEA", bertso saio musikatua Konstituzio plazan. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Oihana Bartra, Nerea Elustondo eta Eli Pagola.
23,30 AVENIDA orkestra, dantzaldia Easo plazan.
23,30 MARIACHI INTERNAZIONALE, mariachia Boulevardeko kioskoan.
23,30 ORTZI taldeak "ILUSIOA" ikuskizuna aurkeztuko du, Gipuzkoa plazan.
23,45 BERRI TXARRAK, rock musika Saguesen. Babeslea: Amstel.
00,00 FESTARA, Gaztelubideko abesbatzak abestuta Donostiako Orfeoaren laguntzarekin Koruko Ama Birjinaren kalean (Gaztelubide Elkartearen aurrean)

A.15
LARUNBATA

11,00 ASTE NAGUSIKO VIII. MARMITAKO LEHIAKETA Gipuzkoa plazan.

12,00 DONOSTIAKO ERREKORTARI TXAPELKETA Illunbeko zezen plazan.
12,00 ARKAITZ AÑORGAKO DANTZARIAK, ezpata dantza eta brokel dantza, folklorea Parte Zaharreko kaleetan. Irteera: portutik. 12,30ean emanaldia Konstituzio plazan.
13,00 BELA ESTROPADEN ZEHARKALDIA badian, Paseo Berrian eta Zurriolan zehar.
13,30-14,30 BESTEIK-PE, rock-ska musika Kursaaaleko Urumea terrazan.
18,00 EUSKAL MAKILA ETA ERDI AROKO ESKRIMA ERAKUSTALDIA Zurriola pasealekuan (kubo txikiaren atzean).
19,00 Musika Hamabostaldia. G. PUCCINlren "TOSCA", Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Easo Abesbatzaren eskutik Kursaaaleko Auditorioan.
19,00 IRUN HIRIA MUSIKA BANDA KULTUR TALDEA Boulevardeko kioskoan.
20,00 SARDINA JATEA Easo plazan,
21,00-22,15 BESTEIK-PE, rock-ska musika Kursaaaleko Urumea terrazan.
23,45 REMEMBER QUEEN WORLD TOUR 2015, Saguesen.



Cursos de parapente y vuelos biplaza



URRUTI
sport shoes and wear

Avda. Libertad 39 Donostia · urruti.com · ☎ 943 278 196 - 629 436 866



IPARRA
Janariak

Claudio Delgado, 3. 20001 DONOSTIA · Telf.: 943 29 20 77

Baliatu
uda zure
irribarrea
fintzeko



trento

- Lehenengo ikustaldia
- erradiografia panoramikoa
- garbiketa: 35 €
- Implantologia
Hortz finkoak egun bakarrean (minik edo josturarik gabe)
- Aho-estetika.
Hortzen zuritzeak. Inperfekzioen zuzenketa salo bakarrean.
- Ortodontzia.
Ortodontzia ikusezina. (Invisalign)
- Protesis
- Inplanteetan eta ahoaren errehabilitazio erabatekoan adituak.

www.clinicatrento.com

TRENTO k.. 8 (DONOSTIA) / TEL: 943 31 69 44

DIGITAL CENTER
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Sánchez

SERVICIOS GRÁFICOS
papelería, diseño, impresiones
invitaciones y detalles
bodas · comuniones · bautizos

Nueva dirección a 30 mtrs
Apertura 1 de Septiembre
EASO 31 - DONOSTIA
Tel. 943 465 308

www.imprentasanchez.com



APAL

DEKORAZIOA ETA BARNE DISEINUA
DECORACIÓN E INTERIORISMO

GORA
DONOSTIA

· AMETZAGAÑA 7 BAJO · 20012 DONOSTIA ·
· info@apaldenda.com · www.apaldenda.com · 943 320400 ·

Casi ocho décadas sirviendo helados artesanos

En el número 22 de la calle Aldamar se encuentra la italiana más famosa de Donostia. Con casi 80 años a sus espaldas, la heladería La Italiana sigue sirviendo helados de sabores diferentes, basados en sus recetas caseras. «Calculamos cuánto azúcar por cada litro, le damos nuestro sabor y los amoldamos a nuestra manera», explica José Mari Arin, que lleva a bordo de la nave desde hace casi cuarenta años.

La heladería fue fundada en el año 1939 por el matrimonio italiano Giuseppe Moncalvo y Metilde Priano, originarios de Gavilgure, en la provincia de Alessandria. En aquella época fueron varias las heladerías que abrieron sus puertas, y los comienzos no fueron fáciles.

En 1939 era una fábrica de pasta, y aunque por esa época se vendía mucha, debido a la "fiscalía de tasas" y al raciocinio, tuvieron que bajar la persiana.

PIONERA EN DONOSTIA

El matrimonio pensó en volver a Italia. Entonces, un amigo de la pareja les empezó a mandar las cremas de los helados, y estos las vendían en la puerta del actual establecimiento. No fue malo el primer verano, ya que lograron vender bastante. Otro amigo, que regentaba una heladería en Logroño, les enseñó a hacer el helado. Poco a poco fueron ampliando el local y poniendo más mostradores; también pusieron unas mesas para que los clientes se pudieran sentar. Trabajaban seis meses y cerraban durante el invierno.

Por aquel entonces predominaban los sabores clásicos, como el mantecado, chantilly, chocolate o fresa. La calidad de



los helados era excelente –como ahora– y eso se reflejaba en las ventas. «Venía gente desde ciudades como Madrid o Zaragoza», recuerdan.

Ornella Moncalvo, hija del matrimonio, compaginaba sus estudios con el trabajo; con doce años de edad ya vendió sus primeros helados; trabajaba en verano y estudiaba en invierno. Después se casó con Gianni Gemme y el establecimiento se

La heladería Italiana está situada en la calle Aldamar. Fue fundada en 1939 por un matrimonio procedente de Alessandria, y desde hace casi 40 años está a cargo del lezoarra José Mari Arin.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

amplió a café, capuchino, irlandeses y escoceses. La Italiana también fue pionera en esto, puesto que no había establecimientos de este tipo en Donostia en aquella época. Con el café también tuvieron mucho éxito, y el establecimiento pasó a abrirse durante todo el año.

Cuando se jubiló el matrimonio Moncalvo-Priano, se incendió la casa, y a raíz de ello tuvieron que hacer una reforma. Aun

así, siguieron con más ganas que nunca. Empezaron a trabajar en nuevas clases de helado, como granadina, estraciatella, glasse... y así nació la especialidad de la casa: el helado de amarena. Con este peculiar sabor ganaron el premio al mejor helado. «Fue un concurso organizado por gastronomos y estuvo muy bien. Desde entonces –señala–, un montón de gente ha venido a pedir exclusivamente el de amarena».

Después de jubilarse Ornella, el local quedó a cargo de José Mari Arin, "el gran jefe", como le llamaban. Natural de Lezo, continúa haciendo helados artesanos como los de antes, de los que ya casi no quedan. En todos estos años Arin ha vivido un sinfín de cambios, tanto sociológicos como tecnológicos, aunque él se mantiene fiel a sus costumbres. «Yo me manejo bien con mi maquinaria de siempre», afirma.

CON FRUTAS Y PRODUCTOS NATURALES

Tal y como se hacía al principio, las variedades de helado que se ofrecen al público son artesanales y están elaboradas en las instalaciones de La Italiana, con frutas y productos naturales. Se compran en temporada, se preparan y se congelan para su utilización durante el resto del año. A su vez, investigan continuamente para tratar de ofrecer nuevas variedades. «El último intento lo estamos haciendo con el helado de queso Idiazabal; quizá quede mejor para ensalada que para postre».


Lo que no cambia es la tradición donostiarra de comer helado durante la Aste Nagusia. Para La Italiana, es la semana del año con más trabajo, y así lo indican las colas que se forman antes de los fuegos artificiales. «No sé exactamente de cuándo procede la tradición, ni por qué se hace, pero existe desde que yo empecé en La Italiana. ¡Y que sea por muchos más!», exclama Arin.

*kantauriko
arrainak eta itsaskiak
Idi txuletoa
Etxeko gozoteria*

CASA TIBURCIO
2003 DONOSTIA
Fermín Calbetón, 40
☎ 943 423 130
☎ 943 420 680
www.casatiburcio.com
Descanso semanal
Miércoles tarde y Jueves


Casa Urola
RESTAURANTE - JATETXEA
Fermín Calbetón 20
20003 I Donostia - San Sebastian
T. 943 44 13 71
Info@casaurolajatetxea.es
www.casaurolajatetxea.es

Lukainkategi
Plater berriak
Terraza paregabea


Aingeru zaindaria 85, AÑORGA - DONOSTIA - ☎ 943 37 14 44

Cervecería
MONPAS
Gros-Sagües


82 CERVEZAS MONPAS DONOSTIA